

Jose Garmendia omenduko dugu Ardiki egunaren inguruan

Urtarrilaren 31an egingo da aurtengo ArdiKi Eguna. Badakizue antolatzaileen asmoa zein den hasiera-hasieratik, kulturari tartea egitea egun horretan, ahal baldin bada herritarren bat omenduz. Iaz, Mikel Arreseren bidez, herriko dantzari zaharrak omendu genituen, gure Iztueta handiaren sorlekuan dantzari asko izan baita historian zehar.

Aurten beste zaldibitar bat omendu nahi genuke: Jose Garmendia Arruebarrena zena. Eta kasu honetan ere ezin ahaztu Iztueta, haren dantzak eta bizimodua. Hain zuzen, Jose Garmendia, Dendaberriko apaiza, izan da Iztuetaren biograforik handien eta haren lanen ikertzailerik serio eta sakonena. Jainkoak bestek ez daki zenbat idatzi duen Iztuetaren gainean!

Idatzi horietako asko argitaratua dago Juan Ignazio Iztueta. Dantzarien maisu. Miscelánea liburuan, baina artean asko falta zen, eta Garmendiak liburu berria egiteko desioa azaltzen du, bere «paper zaharren» artean. Guk buelta eman diogu egoerari eta Jose Garmendiari berari buruz atera nahi izan dugu liburua, nahiz eta hor ere testurik gehienak Iztuetaz diren.

Ehun eta berrogeita hamar orrialde inguruko liburua geldituko zaigu. Jende ospetsuaren hainbat hitzaurre eta goraiamenen ondoren, Josek idatzitako artikuluek hornitua dator liburua. Rufino Iraola Garmendiarena izan da testu horiek euskaraz ipintzeko ardua, Joxe Alberto Andres Zurutuza aholkulari duela.

Uste dugu, oso neurri apalean bederen, zor txiki bat kitatu dugula Jose Garmendiarekin, orain arte ez baitzaio aitortu egin duen lan eskergariaren meriturik.

Joxe Garmendiak lan ikaragarria egin zuen, eta uste dugu itzultzaileak ere ondo asmatu duela haren hitzak euskaraz ipintzen. Dastatu eta gozatu.

ARDIKI KOFRADIA, 2010

ZALDIBIAKO XVI. MONDEJU LEHIAKETA

1. PARTE-HARTZAILEAK:

Parte-hartzea irekia izango da. Mondeju zuria egiten dakien edonork har dezake parte.

2. IZENA EMATEA:

Izena urriaren 29a baino lehen eman behar da **943 16 03 38** telefonora deituz. Orduategia: astelehenetik ostiralera, 12:00etatik 19:30etara.

3. AURKEZPENA:

- 5 kana ekarri behar dira jateko prest.
- Bertako produktuekin eginak.
- Mondejuak, beren salda eta guzti, Zaldibiako plazara eraman behar dira urriaren 31ko goizeko 10:00etarako.

Oharra: Antolatzaileek lehiaketako parte-hartzaileek ekartzen dituzten ontziei, zerbaki bana emango diete, epaimahaikideek mondejugileen izena jakin ez dezaten.

4. PUNTUAZIO-IRIZPIDEAK:

Lehiaketan aurkezten diren mondejuen puntuaziorako, irizpide hauek hartuko dira kontuan: itxura, estalkia, ebaketa, zaporea, usaina eta nahasketako osagaien txikitze-tamaina.

5. EPAIMAHAIAREN OSAKETA:

Epaimahaia jatetxeetako sukaldari ezagunek eta gai honetan aditu diren herritarrek osatuko dute.

6. SARIAK:

- 1.- 300 euro eta txapela
- 2.- 200 euro
- 3.- 100 euro


7. PARTE-HARTZAILE GUZTIEK

25na euro jasoko dituzte.

2010ko ARDIKI EGUNA

Urriak 30,31

ZALDIBIA



ZALDIBIA



URRIAK 30

19:30etan **HIZKETALDIA:** Kultur Etxean.

Gaia: Mendiko ardi gaztaren Proiektu pilotua.

Hizlariak: Joseba Beitia, Lur-laneko arduraduna eta Javier Jáuregui, Etorlureko teknikaria.

URRIAK 31

10:30etan **DIANA.** Herriko txistulari, Juan Mari Beltran, Astiazaran aita alabekin taldean eta Hernaniko musika eskolako albokalari, dultzainero eta txistulariak alaituta.

ARTISAUTZA ERAKUSKETA. Ardi gazta, Mondejuak egiten, telarra, artillea lantzen, galtzerdiak egiten eta zestoak egiten, aida idiok...

GANADU ERAKUSKETA. Ardi eta ahari loteak, pottokak,...

SALMENTA AZOKA.

12:00etan **ZALDIBIKO XVI. MONDEJU ETA XIII. ARALARKO GAZTAREN LEHIAKETAK.**

Andoni Egaña eta Sebastian Lizaso bertso kantari direla mondejuak dastatu ahal izango dira herriko plazan.

13:30etan **SARI BANAKETA.**

14:30etan **BAZKARIA.** Herriko jatetxeetan mondejua, ardikia saltsan, ardikia erreta piparrakin, gazta, ardoa, kafea, kopa eta purua. Bazkari-txartelak herriko jatetxeetan daude salgai.

17:00etan **HERRI KIROLAK,** Zaldibi eta Amezketako taldeen arteko lehia.

19:30etan **LAGUNARTEKO KALEJIRA,** 2010ko Ardiak Egunari amaiera emateko.

21:30etan **ARDIKI EGUNAREN AMAIERA.**

JOXE GARMENDIA GOGORATUZ

URRIAK 27

19:00etan **Karrera Ene Kultur Etxean, liburuaren aurkezpena: JOXE GARMENDIA AGERIAN.** Testu hautatuen bilduma.
Parte hartzaileak: Euskaltzaindiatik Joxe Luis Lizundia Askondo Jauna, Euskalerrriaren Adiskideen Elkartetik Joxe Maria Urkia Etxabe Jauna eta Egilea-Moldatzailea Rufino Iraola Garmendia Jauna.

URRIAK 28

19:00etan **Karrera Ene Kultur Etxean, HIZKETALDIA.**
Gaia: Goierriko Dantzak. Historia eta metaforak.
Hizlaria: Juan Antonio Urbeltz Navarro Jauna.

URRIAK 31

11:00etan **Meza Nagusia:** Joxeren oroimenez.

12:00etan **Dantza Erakustaldia:** Zaldibiko eta Aurtzaka dantza taldeen eskutik, Goierriko dantzak. Olano, Pujana eta Iztueta maisuek, Zaldibiko dantzari txikiak prestatzen zuten errepertorioan oinarritutako dantzak. Brokel dantzak.

Joxe Garmendia zenari, omenalditxo herrikoia.

Soka dantza.



Juan Inazio Iztueta Etxeberria
(1767-1845)



ZALDIBIAKO dantzarria
(XVIIIgarren mendea)